

Bero-beroan

Gazteek gero eta gutxiago darabilte euskara

ALDAKETA HANDIRIK ez da Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egindako *IV. Inkesta Soziolinguistikoa*. 15 urteko tartean (lehen inkesta 1991koa da eta azken datuak 2006an hartuak) Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen ezagutzak eta erabilerak gora egin dute, Nafarroan bere horretan mantentzen dira eta Iparraldean galerak segitzen du. HPSk behin eta berriz azpimarratu du euskararen geroaren giltza, herritarrei dagokienez behinik behin, erabilerak dela, eta HPSk berak begia erabileran jarri du inkestako datuak interpretatzeko orduan. Erabilerak gora egin du Euskal Herrian, gora egin du elebidun kopurua igo delako.

Alegia, euskara ikasi eta erabiltzen duen jende gehiago dago gure artean. Kezkatzekoa dena da lehendik euskara zekitenek gero eta gutxiago erabiltzen dutela eta batez ere 16-24 urte artekoek. Eta zergatik erabiltzen dute euskara gero eta gutxiago gazteek? Patxi Baztarrika HPSko sailburuordeak inkestaren aurkezpen egunean ondoko testuingurua marraztu zuen: gero eta gazte gutxiagorentzat da euskara ama hizkuntza eta beraz, gaitasun gutxiago dute euskaraz gaztelaniaz edo frantsesez baino. Gune erdaldunetan bizi dira eta euskaraz aritzeko aukerak mugatuak dira.

Baztarrikak erabileraren beherakada hori normalizat jo du, hiztuna inguratzen duten baldintzak kontuan hartuta. Alabaina, erabilerarik gabeko hizkuntzak etorkizunik ez duenez, praktika bete lan bada inertzia hori aldatzen. Sailburuordeak 16 urtetik behe-

rako hiztunak izan zituen gogoan, inkestan sartzen ez direnak eta azpimarratu zuen, inkesta eginez gero adin tarte horretako emaitzak hobekirak liratekeela. Eskolaren eragina, ikasi eta erabili, baina haurrak gazte egiten diren neurrian euskara bazterrera eta erdarak aurrera.

Bestalde, Baztarrikak euskal gizartearen hiru ezaugarri azpimarratu zituen, elebakarrak sortzeko baldintza aproposak ezartzen dituztenak eta kontuan hartu beharrekoak: demografiaren zahartzea, jaiotze tasa baxua eta etorkinak.



1991n hasita bost urtez behin egin du HPSk inkesta soziolinguistikoa.

TALAIAN

Europa antisozial eta errepresiogilea

Ez da Europar Batasunak gizarte maila baxukoekin jarrera antisoziala duen lehen aldia. Eta beti enpresa eta sektore-lobbyei zein multinazionalen men eginez. EBren historiak hala erakusten du. Burdingintzako eta ontzigintzako langileak, meatzariak, nekazariak, abeltzainak, arrantzaleak, eta abar izan dira bere politika antisozial eta neoliberalaren biktimak. Azken asteotan, ordea, EB urrunago joan da eta ohiko kaltetuei etorkinak gehitu dizkio. EBko burokratak lan-astea 65 orduetara luzatzea hausnartzen ari dira, eta agirik gabeko etorkinak euren herrialdeetara itzultzeko bidea zabaldu dute. Giza eskubideen aurkako politika bortitzenak eskuintzako alderdi politikoen eta atzerakoiaren proposatu dituzte. Eta salbuespenak salbu, euren burua demokrata eta sozialdemokratatzat dutenen laguntza izan dute.

Testuingurua kontuan hartuta, EBko politikariek ez lukete harritu behar duela egun gutxi Irlandak Lisboako Tratatuari uko egin izanaz. Europari baiezkoa edo ezezkoa emateko erreferenduma orain egingo balitz, ziur aski EBko herrialdeetan ezezkoak irabaziko luke alde handiz. Multinazional eta enpresa-lobbyen Europari, Europa antisozialari, errepresiogile eta solidaritaterik gabeari eta lortzea hainbeste kostatuko langileen eskubide historikoen galera ekarri duenari, ezezkoa emango litzaioke. Langile klaseak, EBko herrialdeetako hiritarrek eta EBen bizirautea nahi dutenek politikari eta gobernuen tratua hobea merezi dute.

Juan Mari Arregi

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologiako masterra

2008-2009 IKASTURTEAN eskainiko du master ofiziala Euskal Herriko Unibertsitateak. Gasteizen, Letren Fakultatean eskainiko da urritik apirilera eta doktoretzako aukera emango du. Irakasleak ondoko unibertsitateetakoak izango dira: EHU, Iruñeko NUP, Bordele, Paue, Frantziako CNRS, Suitzako Geneva, AEBetako Reno eta Zaragozakoak.

Gai asko jorratuko dira, hala nola, psikolinguistika, itzulpenlinguistika eta semantika, euskararen historia eta jatorria, Veleiako berri eta abar.

BAHEA

Josu Iraetarak Berrian esanak:

“Diotenez, euskara osasuntsu dago eta etorkizun oparoaren jabe. Ez naiz iritzi berekoa, (...). Horregatik nire iritziaren beharrezkoa da sozialismoa inbertentzia eta euskararen iraupenerako, horien bidez bakarrik saihestu ahal izango baititugu hizkuntzak egun dituen arrisku larrienak, besteak beste: estatutik eza eta neoliberalismoa”.

Denak EHAKri begira

IRITSI DA UNEA eta batek daki ostiralean Eusko Legebiltzarrean zer gertatuko den, baina EHAK-k erabakiko du Kontsulta Legea aurrera aterako den ala ez. Ezker abertzaleak, oro har, oso jarrera kritikoa izan du hiruko gobernuak landutako ekimenarekin: ez duela gatazka bideratzeko balio, hauteskunde lehiara begira dagoela eta Nafarroa kanpoan uzten duela adierazi du nagusiki.

Bi galdera ditu ahalazko kontsultak, baina bistan da erabaki eskubi-dearen ingurukoak egiten duela ardatz lana, eta ETari dagokiona lagungarri dela. Alde horretatik, Eusko Legebiltzarrak erabaki eskubi-deari buruzko Kontsulta Legea EHAK-ren erruz ez ateratzea zama politiko handia litzateke ezker abertzale osoarentzat. Baiezkoak, aldiz, Eusko Legebiltzarraren burujabetza eta Madrilgo legearen indarra jarriko lituzke aurrez aurre berriz ere, eta ikuspegi demokratikotik kontraesan hori elikatzea beti da onuragarria, hain zuzen ere Madrilgo legitimitate higatzen duelako.

Baina oraingoan edukia baino garrantzitsuagoa da ontzia bera, lehenbizikoz Euskal Herriko lurralde eremu batek bere Kontsulta Legea izango lukeelako, Madrilgo baimenik gabe ateratakoa. Horra hor benetako sakrilegioa. Eta horri ere ezezkoarekin erantzutea ez litzateke oso ulergarria mundu abertzalean.

Baiezkoak hirukoaren bide orrian urrats erabakigarria ematea ekarriko luke. Bide orriari, alabaina, ez zaio etorkizunik ikusten, eta hori da hain zuzen ere Ibarretxe lehendakariak bihotz eta arimaz bultzatutako ekimenaren alde ilunena. Gizarteari begira ez da erantzunik landu Madrilgo ezezko iragarriaren aurrean, eta hori etsigarria eta arris-



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

kutsua ere gerta liteke. Ibarretxe EAJtik askoz harago ere ondo ikusitako liderra da, baina bere zuzendaritza bakarra baino, mugimendu eta ideia argi batzuen lidergo indartsua da gisa honetako prozesu batek behar duena. Gatazkaren konponbiderako ahaleginean porrot berri baten ostean dator ahalegin hau, eta bere hastapenean bederen, ez du ilusio berezirik sortu ez gizartean –hori gaitzagoa da–, baina ezta mundu abertzalean ere, eta hori samurragoa izateaz gain, ezinbesteko beharko luke.

Loiolako elkarrizketetan oinarriko adostasunetik hain gertu egon ondoren, oraingo honek guztiak oso atzera eramaten gaitu, edo irudi hori barreiatzen du behinik-behin. Baina,aldi berean, Loiolakoa dagoeneko hor dago, ezabaezina da, eta porrot baten ondoren, horren azkar beste ahalegin berri batean murgilduta egotea ere esanguratsua da. ETA-Gobernua ohiko saioetatik oso desberdina da, baina saio izanagatik bakarrik begirunea eta aukera bat merezi duena.

EUSKALDUNOI kostatzen zaigu onartzea minoria garela eta urte luzez hala izango dela. Euskal lurralde guztietan hori hala balitz primeran gainera, hori baita euskal hiztun komunitatearen lehen helburua, ahalik eta neurririk handienean euskaraz bizitzea. Euskaraz normal bizitzea. Baina kostatzen da euskal herritar eta euskal hiztunaren arteko bereizketa onartzea.

Minoria gisa garatu ahal izateko behar da euskal gizartearen babesa, zalantzarik ez; noizbait minoria ez izateko bokazioa ere osasungarria eta akuilua da. Baina garrantzitsua da –eta eztabaidaren lehen lerroan jarri beharrekoa–, euskaraz bizi nahi duten guztiek horretarako ahalik eta tresna eta aukera gehien izatea. Orain, gaur, bihar beranduenez, etzi damurako utzi barik.

Jaurlaritzaren IV. Inkesta Soziolinguistikokoak ez du berri gehiegirik ekarri, beti da poztasunerako eta kezkarako daturik, baina oro har ez da zuzirik botatzeko modukorik. Euskal hiztunek euskararen orainaz eta etorkizunaz eztabaida eta hausnarketa zabal eta sakona egiteko garaia heldu da agian.